



213. zenbakia

ABENDUA 2021

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Jose Angel Azpirozek bere artaldeari egindako argazkia

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 9an bidalia



GURASOAK

“ *Diagonalean esertzen dira
biak bakarrik egonda ere*

*hiru gara gaur eta
mahaia jarri bitartean
orban berriak antzeman dizkiet
eskuetan*

*jabetu naiz
haien agertze abiada geldoaz*

*erritmo berean nola doazen
elkarren ertzetan leku hartzen*

*—korridorean azken
atea urrunean txiki—*

*zahartzaroa izango den
itxarongela jendetsurako.* “

Itziar Ugarte Irizar, Gu gabe ere (2021)



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra





Belaunaldi baten buru osasuna kolokan

ARGIA aldizkariak pandemiak buru osasunean eragindako ondorio kaltegarriez erreportajea argitaratu zuen apirilaren bukaeran, bereziki gazteengan jarritz fokua. Lan horren laburpen bat ekarri dugu hilabete honetako osasunaren atalera. Erreportaje osoa irakurtzeko, ondoko QR kodea sar dezakezue zuen mugikorrean

Urtebete baino gehiago igaro da COVID-19aren pandemia hasi zenetik, eta badirudi osasun-krisialdia eta krisi ekonomikoa ekartzeaz gain, beste arrasto bat ere uzten ari dela, hain zuzen ere, osasun mentalean. Krisialdi egoerak gizarte osoan izan ditu eraginak, estresa, larritasun sentimendua eta antsietatea bezalakoak areagotu egin dira, baita nekea eta tristura sentimenduak ere.

Azken urte honetan, buruko osasunaren inguruan egindako ikerketek mahai gainean jarri dituzte pandemiaren ondorio psikologikoak, eta gazte eta nerabeen inguruko datuak nabarmendu dira bereziki. Espainiako Ikerketa Soziologikorako Zentroak (CIS), pandemia garaian espainiarren osasun mentalari buruzko inkestaren txostena argitaratu zuen otsailean. Dioenez, 18-34 urte bitarteko gazteak – emakumeekin eta klase baxuko pertsonekin batera– izan dira

pandemiak sortutako nekea gehien jasan dutenak. 18 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetatik hiruk adierazi dute antsietate-krisiak jasan dituztela pandemia hasi zenetik, eta lautik batek oso triste edo deprimituta sentitzen dela. Halaber, talde horretako %18ak “beldur handia” sentitu du.

Espazio Lunarra Hernanin dagoen zentro psikoterapeutiko da, eta bertako kideen ustez, ez zaio behar besteko arretarik ematen buruko osasunari.

Zer egin osasun mentala zaintzeko?

Espazio Lunarreko kideek azpimarratu dute pertsonak ez garela izaki bakartiak, elkarren mendekoak baizik. “Sistema honek, gero eta indibidualismo handiagorantz bultzatzen gaituen arren, izaki sozialak gara eta gainerakoen beharra dugu ikasteko eta bizitzeko”.

Haien proposamena bide horretatik doa, norberaren eta taldearen zaintzan lan egitea, pertsonak erdigunean jartzea eta gure benetako beharrei erantzutea baitute helburu. Haientzat eraldaketa sozialerako tresna da hori.

Aitor Aritzeta EHUKo Psikologia Fakultateko irakasleak, bestalde, estresari aurre egiteko energia berreskuratu behar dugula dio, eta horretarako lau hankatako aulkian eseri behar dugula. Zeintzuk dira, bada, lau hanka horiek? Lehen hiruak lirateke elikadura osasuntsua izatea, kirola egitea (antidepresibo onenatarikoa da) eta lo errutinak zaintzea. Horien bitartez energia fisikoa berreskuratu dezakegu. Osasun mentala indartzeko orde, laugarren hanka daukagu: harremanak zaintzea eta babestea –ahal bada fisikoki–, gehiago irakurtzea, gain informazioa ekiditea, yoga, meditazioa edo antzekoak praktikatzea... “Lau gauza horiek zainduz osasun mentalari izugarrizko bultzada eman diezaiokegu”.

“ Elikadura, kirola, lo errutinak eta harremanak dira gakoak ”



▲ Pandemiak bereziki gazteengan ari da arrastoa uzten (Argazkia, Dani Blanco)



Elizak immatrikulatutako 65 ondasun zenbatu ditu Nafarroako Gobernuak gure eskualdean

Eliza katolikoak Nafarroako herri askotan egindako immatrikulazioen inguruan entzun izan dugu zerbait azken urteotan, baina azaro bukaeran eztabaida berriz puri-purian jarri da. Zergatik? Bada, Eduardo Santos Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak ia 3.000 immatrikulazio jasotzen dituen txostena aurkeztu duelako Parlamentuan. Ultzama aldeko kasu mordoxka bat ere ageri dira bertan.

1900. urtetik 2015era bitartean Nafarroako lurralde zabalean emandako immatrikulazioak dira Santosek Nafarroako Parlamentuan aurkeztu dituenak; guztira, 2.952 ondasun. Txostenean, herriz herri emandako kasu guztiak jaso dituzte, tipologiaren arabera ere banatuta. Gure eskualdean, guztira, 65 ondasun izan dira immatrikulatuak: 8 Anuen, 10 Atetzen, 11 Basaburuan, 7 Imotzen, bakararra Lantzen, 12 Odietan, eta 16 Ultzaman.

Elizak, lursailak, etxeak, frontoiak...

Pentsa liteke immatrikulazioen kasurik gehienak elizak, tenpluak eta antzekoak izanen direla, baina Nafarroa mailako datuek kontrakoa erakutsi dute. Hain zuzen, ondasunen %33 inguru soilik dira

tipologia horretakoak. Bestelakoen artean daude baratzeak, larreak, basoak, etxebizitzak, frontoiak, hilerriak... denetik. Guztira, elizaren esku gelditu diren ondasunek 4.107.605 metro koadroko azalera hartzen dutela kalkulatu dute txostenaren egileek, "Sadar futbol zelaia 575 aldiz", zioen Santosek.

Gure eskualdeari dagokionez, elizak eta ermitak dira kasu gehienak, baina nekazaritzako lurrak, orubeak, hilerriak eta belardiak ere ageri dira txostenean. Esaterako, Anotzibarko hilerria eta Ostizko belardi eta orube bat, eta Burutaingo nekazaritzako lur zati bat. Aipatzekoa da, horiez gain, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak lehenago bilduak zituen datuen arabera, 1998. urtea baino lehen

emandako immatrikulazio kasuen artean jasoak zeudela Etsaingo baratze bat eta bi nekazaritza-lur ere.

Nafarroa mailan, gure eskualdetik hurbil dagoen Esteribar izan da immatrikulazio kopuru handiena jasan duen udalerria, 109 kasurekin. Lizarraldean ere eraikin ugari pasa dira elizaren eskuetara. Landa eremuetan izan dira kasu gehienak.

Lege frankista bat, immatrikulazioen atzean

Zuzenbide alorrean, immatrikulazioa propietate bat erregistroan lehen aldiz inskribatzean datza. Izan daiteke finka bat, etxe bat, frontoi bat, katedral bat... notarioa izaten da immatrikulazioaren ekintza gauzatzen duena. Baina, zer gertatu da elizak egindako immatrikulazioen kasuan? Bada, oinarrian 1946ko Espainiako hipoteka-legeko 206. artikulua dago. Artikulo horrek, Eliza ondasunak immatrikulatzeko

“

**Nafarroan, guztira
2.952 ondasun
immatrikulatu ditu
Eliza katolikoak**

”



Beuntzako Asunzion eliza
immatrikulatutako ondasunetako bat da



fede-emaille publiko gisa izendatu zuen. Hain zuzen, apezpikuak ziren ekintza horretarako eskumena zutenak.

Harrigarriena, frankismo garaian ezarritako lege hori 2015 arte indarrean egon izana da. Legeak aldaketa bakarra 1998an izan zuen, baina Elizari eskumen gehiago emateko izan zen aldaketa hura, Aznarren gobernuak bultzatua. Ordu arte, gurtza guneak immatrikulatzeko aukerarik ez zuen ematen legeak, baina 1998tik aurrera, horiek ere bere izenean erregistratzeko eskumena izan zuen Elizak. Urte horretatik aurrera nabarmen igo zen immatrikulazio kopurua. Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak bi garai desberdinetan egindako immatrikulazioak ditu jasota, 1998 artekoak eta hortik 2015era bitartekoak, eta hor ere oso argia da desberdintasuna: lehen aldian etxe, lursail eta antzekoen immatrikulazioak egin ziren batik bat, eta bigarreanean, berriz, askoz ugariagoak dira elizenak, ermitenak, basilikenak eta antzeko eraikinenak.



▲ Orokietako San Tiburtzio eliza

Olentzero Iruşeko Arzobispadoan ikatza uzten, immatrikulazioen kontrako protesta moduan ▼



Ondarea herriari itzultzeko eskaera

Urteak daramatza Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak elizak egindako immatrikulazioen inguruan jendarte sentsibilizatzen eta beren eskuetan gelditutako ondasunak itzultzeko eskatzen. Begi onez hartu dute Santos kontseilariak emandako pausoa, baina Espainiako

Gobernuari immatrikulatutako ondasun guztiak itzultzeko eskatu diote.

Azken finean, immatrikulazioen argazki osoa da Nafarroako Gobernuak aurkeztu duena, baina orain, behin argazki hori eskuetan, zein pausorekin jarraitu erabaki beharko da. Kontseilariak gogorarazi du ondasun horiek berreskuratze auziak martxan jartzea udalei dagokiela, nahiz eta prozesu horiek ematea oso zaila izan dela onartu duen. Hala ere, prestutasuna adierazi die udalei, herri-ondasunak berreskuratze aukerak aztertu ahal izateko.

“**Immatrikulatutako ondasunak berreskuratze auziak martxan jartzea udalei dagokiela adierazi du Santosek**”



Immatrikulazioak

Eskualdeko immatrikulazioen zerrenda, udalerrika (Iturria: Santosek Parlamentuan aurkeztutako txostena)

HERRIA	ONDASUNA	TIPOLOGIA	TITULARITATEA
Anue			
Olague	San Juan Bautista eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Burutain	San Pedro eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Burutain	Nekazaritza lurra, elizaren ondoan	Lurra	Iruñeko Elizbarrutia
Etulain	San Esteban eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Egozkue	San Migel eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Etsain	San Juan Bautista eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Leazkue	Asunzion eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Aritzu	San Pedro eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia

Atetz			
Eguaras	San Jose ermita	Ermita	Eguarasko Parrokia
Beuntza	San Migel ermita	Ermita	Beuntzako Parrokia
Amalain	Santa Barbara ermita	Ermita	Amalaingo Parrokia
Beuntza-Larrea	San Migel ermita	Ermita	Beuntza-Larreko Parrokia
Beratsain	San Kristobal eliza	Eliza	Beratsaingo San Kristobal Parrokia
Ziganda	San Esteban eliza	Eliza	Zigandako San Esteban Parrokia
Beuntza	Asunzion eliza	Eliza	Beuntzako Asunzion Parrokia
Eritze	San Migel eliza	Eliza	Eritzeko San Migel Parrokia
Aroztegi	Asunzion eliza	Eliza	Aroztegiko Asunzion Parrokia
Eguaras	San Martin eliza	Eliza	Eguarasko San Martin Parrokia
Aroztegi	Asunzion eliza	Eliza	Aroztegiko Asunzion Parrokia
Eguaras	San Martin eliza	Eliza	Eguarasko San Martin Parrokia

Basaburua			
Orokietia	San Tiburtzio eliza	Eliza	Orokietako Parrokia
Beramendi	San Migel eliza	Eliza	Beramendiko Parrokia
Arrarats	San Pedro apostolua eliza	Eliza	Arrarasko Parrokia
Itsaso	San Pedro eliza	Eliza	Itsasoko Parrokia
Ihaben	Natibitateko eliza	Eliza	Ihabengo Parrokia
Erbiti	Natibitateko eliza	Eliza	Erbisiko Parrokia
Jauntsarats	Asunziongo eliza	Eliza	Jauntsarasko Parrokia
Berute	San Juan Bautista eliza	Eliza	Beruteko Parrokia
Igoa	Asunziongo eliza	Eliza	Igoako Parrokia
Gartzaron	Mariaren Natibitateko eliza	Eliza	Gartzarongo Parrokia
Udabe	San Migel eliza	Eliza	Udabeko Parrokia

Lantz			
Lantz	Gurutze Santuko eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia

Imotz

Etxaleku	San Esteban eliza	Eliza	Etxalekuko Parrokia
Eraso	San Migel eliza	Eliza	Erasoko San Migel Parrokia
Zarrantz	San Migel eliza	Eliza	Zarrantzko San Migel Parrokia
Muskitz	San Martin eliza	Eliza	Muskizko San Martin Parrokia
Goldaratx	Natibitateko eliza	Eliza	Goldarazko Natibitateko Parrokia
Oskotz	San Kristobal eliza	Eliza	Oskotzko San Kristobal Parrokia
Latasas	San Esteban eliza	Eliza	Latasako San Esteban Parrokia

Odieta

Gendulain	San Juan ermita	Ermita	Iruñeko Elizbarrutia
Anotzibar	San Pedro ermita	Ermita	Iruñeko Elizbarrutia
Ziaurritz	Santa Katalina eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Latasas	San Martin eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Anotzibar	Santo Tomas eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Anotzibar	Orubea Santo Tomas 1 kalean	Hilerria	Iruñeko Elizbarrutia
Ostitz	San Juan Bautista eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Ostitz	Orubea San Juan kalean, 38-A	Orubea	Iruñeko Elizbarrutia
Ostitz	Elizaren ondoan belardia	Belardia	Iruñeko Elizbarrutia
Erripa	San Martin eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Gelbentzu	Nuestra Señora del Rosario eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia
Gaskue	San Esteban eliza	Eliza	Iruñeko Elizbarrutia

Ultzama

Alkotz	Belateko Birgina ermita	Ermita	Alkotzko San Esteban Parrokia
Eltso	Santa Luzia Birgina eta Martira ermita	Ermita	Eltso Parrokia
Arraitz	Asunzion eliza	Eliza	Arraitzko Parrokia
Auza	San Martin eliza	Eliza	Auzako Parrokia
Eltzaburu	San Martzel eliza	Eliza	Eltzaburuko Parrokia
Lizaso	San Simon eta San Judas eliza	Eliza	Lizasoko Parrokia
Alkotz	San Esteban eliza	Eliza	Alkotzko Parrokia
Iraizotz	San Martin eliza	Eliza	Iraizotzko Parrokia
Eltso	San Esteban eliza	Eliza	Eltso Parrokia
Zenotz	Asunzion eliza	Eliza	Zenotzko Parrokia
Larraitzar	San Pedro eliza	Eliza	Larraitzarko Parrokia
Gerendiain	San Lorenzo eliza	Eliza	Gerendiaingo Parrokia
Illarregi	San Migel eliza	Eliza	Illarregiko Parrokia
Urritzola-Galain	Asunzion eliza	Eliza	Urritzola-Galaingo Asunzion Parrokia
Suarbe	San Sebastian eliza	Eliza	Suarbe San Sebastian Parrokia
Gorrontz	Asunzion eliza	Eliza	Gorrontzko Asunzion Parrokia



Euskara, auzolanaren fruitu

: Hasiera batean, herriko eta basoetako toki komunetan lanak burutzeko erabili ohi zen auzolana. Gaur egun, lankidetzaren sinonimotzat hartzen da. Elkarlana, lankidetzaz; auzolanaren bidez, hainbat ekimen hamaika arlotan sortu, bultzatu eta bizirik iraunarazi dira.

Energian, ingurumen arloan, nekazaritzan, kulturen, elkartasun ekimenean... hamaika adibide azpimarratzen ahalko litzateke. Etiket Plazara aletxo honetan, euskalgintzan auzolanez burutu eta burutzen diren hainbat proiektu gogora ekarri nahi ditugu. Euskal Herriko komunikabide askoren sorreran auzolanari esker bultzada eman zitzaizen: gurean, Pulunpe aldizkaria eta Esan Erran irratia zerrendatzen ahal ditugu. Zorionez, gaur egun oraindik, auzolanak garrantzi handia du. Euskal Herriko lehendabiziko euskarazko egunkaria ere auzolan erraldoi bati esker gauzatu zen, herriz herri joanda, kamisetak salduz, jaialdiak antolatuz...

Ikastola eta eskola publikoen aldeko jai txiki eta nagusien antolaketan ere auzolan ederrak ditugu: Ibilaldia, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Kilometroak, Sortzen edo Eskola txikien bestak...

Euskalgintzarekin jarraituz, hainbat liburu-eta disko-azokaren ekimenak aipatu behar dira. Durangoko azokaren hasmentako urteetan, auzolanari esker, oraingo azokaren zimendua paratu zela erran dezakegu. Ziburuko liburu azoka ere, berriki sortutakoa, aipatu behar da.

Errigora eta Iparraldean dauden antzeko ekimenek ere beren tokia izanen lukete euskalgintzako auzolanean. Gure lurak emandako uztak euskara hedatzeko balio izan du. Elkarlan horiekin, euskararen zatiketaren mugak eta zailtasun ekonomikoak gainditu eta arintzen laguntzen dute herritarrek.

Euskalgintzaren lankidetzaren zerrenda bukaezina suertatuko litzateke. Euskaraldiari ere aipamena egin behar diogu. Milaka belarriprest eta ahobizik bihotzean txapa bat eramanda, hamaika egunetan, hamaika egoeratan eta milaka herritan magia sorrarazteko ahalmena erakusten dugu. Eta zerrenda luze horretan, Korrikari aipu berezia egin beharko genioke. Bi urtetik behin Euskal Herria zeharkatzen duen lasterketa, indar-metaketa, ilusioaren besta bilakatzen da; ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, eskuz esku, lekukoa elkarri pasatuz, euskararen iragana, oraina eta etorkizuna auzolan bihurtuta.

Hiztegia

Lankidetzaz: colaboración

Elkartasun: solidaridad

Zimendu: cimientu

Hedatu: difundir



▲ Martxoaren 31tik apirilaren 10era ospatuko da aurtengo Korrika



Indarkeria matxistaren aurkako kontzentrazioak, eskualdean


Urtero bezala, indarkeria matxistaren aurkako aldarrirako eguna izan zen azaoraren 25a, eta gure eskualdean ere mobilizazioak izan ziren. Kontzentrazioa egin zuten Aizarotzen eta Etxalekun, biak 18:00etan.

Basaburuko Bilgune Feministak deitu zuen kontzentrazioa Aizarotzen. Aske izan ahal izateko indarkeriarik gabeko bizitzak ia lelopean bildu ziren hainbat herritar, eta, ondoren, Beldurrik gabe abestia kantatu eta dantzatu zuten.

Imotzen ere, udaletxe parean, Etxalekun, 18:00etan eginen zuten kontzentrazioa. Gainera, ostiralean, azaroaren 26an, Muskitzen, emakumeendako tailer bat antolatu zuten: Gure barruko baliabideak esploratzen izenburupean. Izaskun Robledo izan zen bideratzailea eta ikuspegi sortzailetik Collage-a eta gorputz teknikak erabili ziren.

"Indarkeria bakarra, hamaika modu" izan da aurten Nafarroako udaletan Berdintasun Arloak aukeratu duen leloa.

Azaroaren 25eko kontzentrazioaz gain, programazio kultural zabala antolatu da eskualdean hilabete osoan, gizartearen sentsibilizazioan aurrera egiteko helburuarekin. Tailerrak, Pantxika Lamur



25 N kartela ▲

Pintxo lehiaketa itzuli da Basaburura

Azaroaren 27an eta 28an, eta, ondoren, abenduaren 3an, 4an eta 5ean izan da lehia. Aurten Apeztegi berriko tabernak, jabe berriak dituen Orokietako Ostatuak, Aizarozko ostatuak -hemen ere, oraingo jabeak lehenengo aldiz aurkeztu dira-, eta Udabeko Bentak parte hartu dute.

Pasa den urtean, tabernak itxita, bertan behera gelditu zen pintxo lehiaketa, baina fuerte itzuli da aurtengoan, zubian gainera. Dakizue, bertako produktuak erabiltzea da baldintza bakarra. Hiru euroren truke disfrutatu ahal izan zuten bezeroek pintxo originaletaz eta edariaz.

Pulunpe honen itxieran, oraindik ez genekien irabazlearen izena. Beraz, zorte on parte hartzaileei, eta pintxo horiekin gozatzea opa diegu herritarrei!



pintxo ▲



Hiru eguneko bilaketaren ondoren, hilik topatu zuten Lantzen galdutako bizilaguna

Azaroaren 18an gertatu zen ezbeharra. 84 urteko herritara paseo bat ematera atera zen Lantz inguruan. Ez zeraman mugikorrik berarekin, eta gauean etxera itzultzen ez zela ikusita, familiak larrialdi zerbitzuetara deitu zuen. Segituan jarri zen martxan bilaketa dispositiboa.

Suhiltzaileak, foru poliziak eta hurbileko jendea aritu ziren bilaketa lanetan. Lantzik azpimarratzen dutenez, eredugarria eta txalogarria izan zen herritarrek emandako erantzuna: jende ugari batu zen galdutakoa bilatzeko deialdietara. Lantzen bertan eta inguruko herrietan aritu ziren bilaketa lanetan,



Herritar ugari batu zen bilaketa lanetara' ▲



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Anueko Osasun Etxea berritzen ari dira

Jakina da Anuen eguzki panelak jarri behar dituztela udal eraikinetan, bada, osasun etxea ere bada horietako bat. Horrela, berogailu sistema ere aldatuko dute, orain arte elektrikoa baitzen. Bestetik eta bide batez, teilatua osorik ere aldatuko dute, Miguel Angel Larrayoz alkateak esan digunez nahiko kaxkar baitago.

Baina ez hori bakarrik, "osasun etxeari buelta emanen diogu" azaldu digu alkateak. Izan ere, Osasun Etxerako sarrera egokituko dute, adineko pertsonendako erosoago izan dadin. "Gainera, izoztu egiten zen maiz".

Barrutik ere zoladura aldatu dute eta gela bat eginen dute medikuak eta erizainak kafea hartzeko eta deskantsatzeko tokia izan dezaten.

Mexikortxo Band taldeak, 10 urte

10 urte bete ditu aurten Aizarozko Mexikortxo taldeak eta horregatik ospakizun berezia antolatu dute. Korridoen bitartez mexikar iraultza azaltzen ibili dira han eta hemen hamarkada batez, eta guztiokin herri bazkaria egin nahi dute abenduaren 26an, Aizarozko ostatuan. Eta zuek ere gonbidatu nahi zaituztete:

Arratsalde on Pulunpezaleak.

Aurten, eta abenduaren 26an, Mexikortxo Band taldeak, 10 urte beteko ditugu. Aizarozko neguko jaiak aprobetxatuz, herri bazkaria prestatuko dugu. Bost euroen truke, menua eta, arratsaldean, kontzertua Herriko Ostatuan. Anima zaitzete, izena eman Aizarozko Ostatuan, giroa mundiala izanen dela ziurtatzen dugu. Zorionak Mexikortxo Band eta beste 10 urte errepidean bete ditzagun!!!

Guztiok mexikar mozorrotu!!!





Euskararen egunaren harira, ekimenak eskualdean


Abenduaren 3an ospatzen da euskararen eguna, eta Euskal Herriko beste hamaika txokotan bezala, gurean ere egon da zer ikusi eta zer entzuna. Eskualdeko euskara mankomunitateak Ultzamako Udalarekin elkarlanean antolatuta, abenduaren 4an bakarrik izan zen Larraintzarko Bentan.

Txapeldun bihotza bakarrik Ainhoa Ruiz aktore nafarraren sorkuntza da. 'Dibertigarria, aldarrikatzailea, samurra eta hunkigarria' dela dio ikuskizunaren deskribapenean. Hain zuzen, maitasun erromantikoaren mitoak aztertzeko aukera eman zien entzuleei, baita laranja erdiarena, minarena, eskusibotasunarena eta beste hainbat mito.

Abenduaren 6an ere beste ekimen berezi bat antolatu zuten, hau ere Larraintzarko Bentan. Hodei magoaren eskutik, Tutti-Magia ikuskizuna izan zen arratsaldeko 17:00etan. Baina ikuskizuna baino lehen, eguerdi partean, 5 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako magia tailerra ere eman zuen



Ainhoa Ruiz aktore nafarraren ikuskizuna da Txapeldun bihotza ▲



TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595
Pili 650206699





Ainhoa Iraizoz Euskadiko txapeladuna, lokotx bilketan

Mungian izan zen finala, azaroaren 13an, eta berak batere espero gabe, Ainhoa Iraizozek irabazi zuen. "Honetan ez nuen batere espero irabaztea, ez nuen nire burua ongi ikusten", azaldu digu Iraizotzek. Baina lanak 7 minututan eta 34 segundotan burutuak txapela lortu zuen lokotx bilketan. Bigarrenak baina 17 segundo azkarrago. Segundo baten aldearekin bakarrik Maider Etxezabalek eta Ainhoa Etxegaraik lortu zuten bigarren eta hirugarren postuak.

Trontzan ere lehiatu da Iraizotz, Josetxo Barberenarekin batera. Baina, honetan, bigarren postuarekin konformatu behar izan dira, eta segundo bakar batengatik gainera, Ainhoa Iraizotz: "Pena eta izugarrizko amorrua. Baina finala oso lehiatua eta oso polita izan zen". Azaroaren 21ean izan zen Euskadiko trontza txapelketa. Garbiñe Lopez de Uralderen eta Jon Lapazaren atzetik, segundo batengatik, bigarrenak izan ziren Ainhoa Iraizotz eta

Josetxo Barberena. Lehenengoak bost minututan eta 18 segundotan bukatu zituzten lanak eta Iraizozek eta Barberenak bost minututan eta 19 segundotan. Iraizotzek hurrengo erronka Euskadiko trontza txapelketa femeninoa izanen du Maria Iraizozekin bikote: "abenduaren 19an Gernikan izanen dut Maria Iraizotzekin batera emakumezkoen Euskadiko finala. Ea hori ez zaigun eskapatzen".

Nafarroako gizonezkoen trontza txapelketan, bai, Josetxo eta Iñaki Barberenak txapela lortu zuten. 9 minututan eta 24 segundotan osatu zituzten lanak, Adrian Berruezo eta Alberto Oteiza (10.43) eta Lur Gil eta Iker Goldarazenaren aurretik (13.58). Donezteben izan zen finala, eta bertan, Oier Kañamaresek lehenengo mailan jarraitzeko lehia ere izan zuen, Iban Resanoren aurka. Lesio batetik zetorren Kañamare, baina azkenean gailentzea lortu zuen 22 segundo gutxiagorekin, eta maila mantenduko du.



Ainhoa Iraizoz eta Josetxo Barberena bigarrenak izan ziren Euskadiko Trontza Txapelketan, segundo batengatik



“Lasaitasun bila etorri gara eskualde honetara, eta oso pozik gaude”

Iruñeko Fernando Gurucharrik eta Mari Jose Aceñak kudeatzen dute duela zenbait hilabetetik Orokietako Ostatua. Bizitza oso bat darama bikoteak ostalaritzan lanean, eta azken urteak Iruñeko jatetxe batean egin ondoren, lasaitasun bila etorri dira Basaburura. Oso gustura daudela eta herritarrek harrera oso ona egin dietela kontatu digute.

Nondik nora bukatu duzue Orokietako Ostatuan? Bazenuten eskualdearekin harremanik lehenagotik?

Fernando: Bezero bezala etorri izan gara eskualdeko jatetxeetara-eta, baina bestela, harreman gehiegirik ere ez genuen.

Mari Jose: Tira, egia esan, bere garaian Odietan ere egin genuen lan, Erripako Amaiur jatetxean. Herri txikietako giroa betidanik gustatu izan zaigu. Hori duela 20 bat urte edo izan zen.

Eta azken hogeitau urteotan, ostalaritzan aritu beti?

Mari Jose: Bai, bai! Bizitza osoa daramagu ostalaritzan lanean, 30 urte baino gehiago. Nik denetik egin dut, bai zerbitzari lanak, bai sukaldari... Fernando batez ere sukaldari lanetan aritu da. Hona

etorri baino lehen, Donibaneko jatetxe bat kudeatu genuen bederatzi urtez.

Nola izan zenuten Orokietako Ostatuaren eskaintzaren berri?

Fernando: Internetez izan genuen honen berri, iragarki bat ikusi genuen eta deitzea erabaki genuen segituan. Jende gehiagok ere eman zuen izena, baina azkenean gu aukeratu gintuzten. Ostatua ikustera etorri ginenean asko gustatu zitzaigun, batez ere txikitxo zelako, eta bion artean kudeatzeko aukera izanen genuelako. Goiko partean bizi gara eta behean dugu ostatua, hori ere eroso da.

Beraz, lantokiz ez ezik, bizitokiz ere aldatu duzue?

Fernando: Hori da, honezkero hemen erroldatu gara! (barreak)

“Tokia txikitxo denez, bion artean atera dezakegu aurrera, eta hori eroso da”

Mari Jose: Bai, bizitza aldaketa izan da! Jarraitzen dugu Iruñera ere joaten familia bisitatzerara, baina bestela hemen egoten gara, eta oso gustura gaude. Lasaitasun bila etorri gara, eta giroz aldatzeko beharra ere bagenuen. Egia esan, tokia zoragarria da, eta jendeak ere harrera oso ona egin digu. Hori garrantzitsua da guretzat.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Mari Jose: Aste osoan menu berezia eskaintzen dugu, pikatzeko lehenengo lau plater itxi eta bigarrenak aukeran ditu. Baina, batzuetan hori gehiegizkoa denez, errazioen karta ere eskaintzen dugu. Beno, eta menuko plater solteak eskatzeko aukera ere ematen dugu. Egia esan, edozertara egokitzen gara, bezeroen behar eta nahietara.

Fernando: Bai, eta horrez gain, aurrez enkargatuta taldeentzako menu hitzartuak prestatzen ditugu, eta eramateko enkarguzko janariak ere bai: paellak, haragi errea... Jendeak errepikatzen duela ikusi dugu, eta hori seinale ona da.



Fernando Gurucharrik eta Mari Jose Aceña,
Ostatu atarian



Nola jasotzen zuten gure aiton-amonek?

Ura, bizitzarako elementu nahitaezkoa, noiznahi eskura dugu iparraldeko herrialdeetan. Baina, ez da beti horrela izan, gurean behintzat. Larraintzarko ikastetxean, Sustraiak proiektuan, ura lantzen ari dira aurten. Errekako ura eta inguruko putzuen ekosistema aztertu dute, besteak beste. Baina zientziaren arlotik bakarrik ez, gizartean duen eragina ere ikasi dute, gure herrietako adineko jendearekin bilduz. Haien garaian uraren hornidura nola bideratzen zen eta uraren erabilera ezberdinak ezagutu dituzte horrela. Gauza bera egin nahi izan dugu Pulunpen.

Gaia aukeratzekoan zalantzarik ez zuten izan aurten Sustraiak proiektuan: "Ingurukoarekin zerikusia duen gaiak aukeratzeko saiatzen gara. Eta oraingo honetan zergatik ura? Bada, erreka badaukagu, Ultzama... eta hain garrantzitsua dugu gizarte honetan. Batzorde eragilean denok ados jarri ginen, ez genuen zalantzarik izan, gai polita eta oso garrantzitsua da". Luis Lizarribar irakasle arduradunak azaldu digu.

Duela sei edo zazpi urte sortu zen Sustraiak proiektua, nahiz eta pisu handiagoa hartu duen azkeneko bizpahiru urteetan. Gaur egun guraso taldearen laguntza ezinbestekoa jasotzen du. Luis Lizarribar: "Inguruan duten hori guztia ikusiz askoz gehiago ikasten duten liburuko ez dakit zer orrialdeko halako ariketarekin baino. Askoz ere interes gehiago jartzen dute".

Elkarlana, giltza

Uraren gaia oso zabala da, eta bere osotasunean landu nahi izan dute, ikasgai ezberdinetan txertatzeko. Horretarako, irteraldiak egin dituzte hainbat erakunderen laguntzarekin, Garrapo, Aranzadi eta Nilsarekin, besteak beste: "Auza- Eltzaburun dagoen ur-baltsa bisitatu genuen Garrapoko Eurne eta Itziarrekin; Latasan eta Lantzen dauden ur araztegiak ikustera joan ginen; Ultzama ibaia aztertzeraziaurritzeraz eta Ostizta ere bai...".

esan digu Luis Lizarribarrek.

Gurasoen laguntza eta parte hartzea ere sustatzen du proiektuak: "Atal guztiak ez badira, uraren atal gehienak landu ditugu modu batean edo bestean. Urtero familien parte hartzea ere kontutan izaten da eta aurten larunbat batean Belateko zoikaiztegiaren izan ziren, berriz ere Garraporen laguntzarekin. Goiz zoragarria izan zen, oso gustura egon ginen eta oso ongi pasatu zuten hango naturaren eta luraren bitxikeriak ikusiz eta ikasiz".

Gloria Irigoien:
Horrela bizi ginen!

Ura, beti eskuragarri?

Ura alderdi guztietatik aztertzeke asmo horretan, Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoekin egindako ekintza batek eman digu atentzia. Iraizotzen eta Anotzibarren izan ziren, adineko jendearekin hizketan, urarekin zerikusia duten aspaldiko kontuak jasotzen.

Izan ere, iparraldeko herrialdeetan, ohituta gaude egun txorota irekitzera eta noiznahi eta nahi bezain beste ur eskuratzeraz. Baina hori ez da beti horrela izan. Horrela kontatu digu Nikasio Dorai Bengoetxeak: "Arraratsen, gu jaio ginen baserrian, ez zegoen urik, ura 200 bat metrora zegoen, labadero batean, eta handik eramaten genuen. Gogoratzen dut amak



Emakumeak arropa zintzilikatzen, Errotxapean, 1940an. Fondo Ardanaz, Nafarroako Museoko Artxiboa. Inma Zabaletak sare sozialetan jarria.



buru gainean zeramala arropa garbitzeko, eta ura ere bai". Zauleko Bordan jaio zen Dorai, 1952an, eta orain Iraizotzen bizi da.

Dena batean ez gastatzeko, erabiltzen zutena kalkulatzeko ibiltzen ote ziren galdetu diogu: "Beno, ez genuen gaur bezain beste gastatzen, eh! Baina egia da famili handiak zirela eta franko garbitu beharko zutela. Gauzak errazak ez ziren izango". Eta, dutxatzeko?: "Dutxatu??? (barreak), guk dutxa jarri genuenean ez dakit zenbat urte izango nituen, baina dezente".

Arropa garbitzeko, ikuztegia

Iraizotzen, ikuztegia ikusteko aukera izan zuten Larraintzarko gaztetxoek. Bertan, Gloria Irigoien Mariñelarenak kontatu zien nola garbitzen zuten arropa. Guk ere berarekin biltzeko aukera izan genuen, eta elkarrizketa zoragarria egin genuen 87 urteko emakumearekin. "Arropa ikuztegiaren garbitzen genuen, orduan zeuden ekaitzekin ere bai. Ez zegoen egungo beroa, eta behin sukaldeko txorota izoztu zitzaigun. Ikuztegiara joan, bertako izotza puskatu eta arropa marruskatzeko jarri nintzen. Horrela bizi ginen!".

Eguraldiak eragiten zituen zailtasunez aparte, denbora luzea hartzen zuten arropak garbitzeko, egun bat baino gehiago behar baitzuten: "Ikuztegitik etxera eramaten genuen arropari trapu bat jartzen genion gainean, eta trapuaren gainean errautsa botatzen genuen. Ondoren, ura berotzen genuen suan, pertzetan, eta ur bero horretan uzten genuen arropa gau osoan. Hurrengo goizean, dena berriz hartu eta uretan eragitera eramaten genuen bueltan ikuztegiara". Eta lehertzeko?: "Noski, han ezin zen zentrifugatu (barreak), hartu behar zenuen eta biren artean bueltak eta bueltak eman bihurrituz. Gero zela batean zintzilikatzen genuen, maila on bat zuen zela batean".

Zenbat denbora eman zezaketen galdetu diogu Irigoieni: "Goizeko zortzietan joan zintezkeen eta ordu batetan oraindik han egon. Behin gogoratzen dut ni bakarrik gelditu nintzela, azkena, hainbeste ginen etxean eta nire ahizpa zaharrak ordurako ezkontuta, niri egokitzen zitzaidala... eta halako batean ordu bata jotzen du elizako erlojuan. Bertan biltzen zen txiroetako batek esan zidan: 'Ez al zoaz etxera bazkaltzera?' eta nik 'Ez, ez, hau bukatu beharra daukat'. Berak, orduan: 'Eta ez zaituzte itxoi ten bazkaltzera?', eta nik: 'Ez, ez, anaiak landatik etorriko dira bazkaltzera eta gero nik, bukatzen dutenean,

bazkalduko dut'. Egun horretan ordu biak edo ordu bi t'erdia arte egonen nintzen".



Iraizotzen ikuztegia ▲

Ikasleak, aspaldiko kontuekin harrituta

Iraizotzen, Auzan eta Anotzibarren Nikasio Dorairekin, Gloria Irigoien Mariñelarekin eta Juan Altunarekin izan ziren seigarren mailako ikasleak, antzinako uraren erabilera nolakoa zen entzuten. Ikastetxera hurbildu ginen haiekin hitz egiteko, ikasitakoa kontatzeko. Ura herrietara noiz iritsi zen, ikuztegiaren eta errekan nola garbitzen zuten, lehenengo garbigailuak nolakoak ziren, gauza asko galdetu zituzten

elkarrizketa horietan. Baina zerk harritu zituen gehien? Komunak nolakoak ziren.

"Gaurko komunik ez zuten! Anotzibarko Felicitasek kontatu zigun balkoian izaten zutela komuna!", azaltzen digu Irenek. Luis Lizarribar: "Eta horiek kaxotxan artean aberatsenak ziren!"; eta, Antonek: "Orain papera dugu, paretak...".



▲ Larraintzarko ikastetxean seigarren mailakoek kontatu ziguten herritarrek kontatu zietenak. Zutik, ezk-esk: Unai, Iosu, Marc, Alain, Anton, Oier, Olaia, Aimar, Nagore. Erdian: Itziar Pulunpetik, Naroa, Irati, Nerea, Irene, Arhane, Ane, June, Josune. Aurrean: Iker, Peio M., Martina, Intza, Oihana.







Itziar Mariezkurrena: “Sariengatik baino gehiago, euskarari bultzada bat emateko erosten ditu zenbakiak jende askok”

Iragarri genuen aurreko Pulunpen ere: urtebeteko geldialdiaren ondoren, hemen da berriz Zozketa Mundiala! Ametza kultura elkarteak antolatu du beste behin ere, eta zozketako zenbakiak erosteko aukera dago eskualdeko ohiko lekuetan: tabernak, jatetxeak, dendak... Horrez gain, zenbakiak saltzen dituzten hamaika boluntario ere lanean ari dira honezkero. Horieta batekin hitz egin dugu guk, Itziar Mariezkurrenarekin

Zer, Itziar, hasi zara Zozketa Mundialeko zenbakiak saltzen?

Bai, bai, batzuk baditut salduak!

Noiztik hartzen duzu parte zozketan?

Uuuf... aspalditik. Zozketa antolatzen hasi zenetik nabil horretan, izanen dira zazpi edo zortzi urte. Urte mordoxka bat badira, bai.

Zergatik erabaki zenuen bere garaian honetan aritzea?

Tira, dirua ateratzeko aukera desberdinak begiratzen aritu ginen, eta orduan pentsatu genuen zozketa bat antolatzea izan zitekeela bide bat. Uste dut Nafarroan egiten den zozketarik handienetakoa dela, eta zenbakiak saltzen-eta jende gehienak parte hartzen duena.

Zenbaki gehientxuen saltzen dituenetako bat omen zara zu...

Hala izaten zen lehen, bai. Asko ibiltzen nintzen handik eta hemendik, esaterako, Iruñea Kantuz ekimenean jendea oso ongi portatzen zen, eta zenbaki asko saltzen genituen. Eta Dantxarinean ere, Kantu zaharren egunean, pila bat saltzen zen.

Eskualdetik kanpo ere iristen da, beraz, zozketa.

Bai, bai. Gipuzkoa aldean asko saltzen da, iparraldean ere bai, Baztan inguruan... tira, leku guztietatik mugitzen gara azkenean! Joan zen urtean, zozketarik ez genuen egin, eta jende askok galdetzen zidan: “Ez al da zozketarik aurtien? Hori pena!”.

Sari potoloren bat edo beste banatu izan duzu orduan, ezta?

Bai. Txerriak izaten dira sari potoloenak, baina bidaia ere bada, gaztak... dena dela, nik uste dut jende askok euskara laguntzeko eta bultzatzeko erosten duela gehiago. Normalki ez da sariagatik egiten den erosketa bat.

Zuri tokatu al zaizu zerbait noizbait?

Niri ezer ez! (barreak). Zenbaki asko erosi izan ditut, baina ez zait inoiz ezer tokatu. Hori bai, hurbilean, alabari duela urte batzuk bazkari bat tokatu zitzaion, herrian ere tokatu izan da...

Boletoak saltzeaz gain, zozketa egunean bertan ere lan eta lan aritzen zara...

Egun guztian hantxe aritzen gara, bai. Saltsa hori gustatzen zaigu, baina, gainera, egin beharreko zerbait da, askotan ez baita jende askorik izaten parte hartzeko prest. Zozketa egunean ere lan handia egoten da: boleto guztiek izenak daramatzatela kontrolatu, dirua zenbatu... denbora asko eskatzen du!



Itziar Mariezkurrena boluntario lanetan dabil aspalditik

“Eskualdetik kanpo ere zenbaki asko saltzen dira: Gipuzkoa aldean, Iparraldean, Baztanen...”



Bideak

Dokumentalean irudikatua; orain, kontatua eta kantatua

2019ko urrian Aritz Ganboa artzainak bere jatorriak lotu eta Arruazutik Izabarainoko bidea egin zuen korrika. Berak egindako gazta bat zeraman, Erronkariko artzain batekin elkartrukatzeko. Abentura filmatu eta bidean gertatzen zen guztia jasoz, dokumentalean bihurtu zuen. Ibilbide oparoa izan du filmak geroztik, 60 emanaldi baino gehiagokoa. Orain, dokumentalak pauso bat gehiago eman eta ipuin bihurtu dute Joana Ziganda idazle oskozarrak eta Iker Uribe ilustratzaileak.

Azaroaren 26an eta 27an aurkeztu zuten Irurtzunen eta Lakuntzan, eta Durangoko azokan ere bere tokia izan zuen Bideak ipuinak.

Ipuina behar batetik sortu zen, erronka eta dokumentalaren mezua haur eta gaztetxoei helaraztekoa. Eta zein da mezu hori? Bada, landa eremu eta Euskal Herria bizi bat aldarrikatzea. Aritz Ganboa: "Azkenean ordu t'erdiko dokumentala da, eta adin jakin batekoek arreta mantentzea zaila da. Baina aurkezpen guztietan istorio bat kontatzen nuen, horrek motibatu baitzuen dokumentala, eta konturatzen ginen horrekin berehala konektatzen zutela. Orduan, Xabi Unanuari (zuzendariari) bururatu zitzaion: 'zergatik ez dugu egiten dokumentalaren ipuin bat?'".

Ganboak berehala baietz esan eta beste buelta bat eman zion: "Ipuina kontatua izatearekin batera, kantatua izatea ere polita litzatekeela iruditzen zitzaidan, eta beste sorkuntza prozesu batean sartzeko aukera ematen zigun". Horrela, ipuinarekin batera, bertso sorta ere bihurtu dute dokumentala. Mixel Aire, Eneko Lazkoz, Onintza Enbeita, Oihana Iguaran, Miren Amuriza, Julio Soto, Maddalen Arzallus, Oihana Bartra, Joanes Etxebarria, Elixabet Etxandi, Ruben Sanchez eta Imanol Lazkano bertsolarien laguntza izan dute.

Joana Zigandak hitzak, Iker Uribek irudiak

Dokumentala ipuin bihurtzeko, ordea, Joana Ziganda oskozarrarengana eta Iker Uribe ilustratzailearengana jo zuten, hirurak Sakanako herritarrak. Joana Ziganda: "Aritz eta Xabi pixka bat ezagutzen dituzunean transmititzen duten energia izugarria da. Erronka moduan etorri zitzaigun, eta esan genuen, 'hauek egin, egingo dute'... eta bai, nahiko azkar esan genuen baietz. Baina batez ere transmititzen duten horregatik. Ikusten zen emozio handiz bizi zutela proiektu orokorra, bagenekien aterako zela, eta horrek salto egiteko ziurtasuna eman zigun".

Ipuina sortzeko prozesua talde lana izan zela azaldu digu Joana Zigandak: "Oinarrian dokumentala zegoen eta Aritzek oso garbi zituen



Bideak ipuinaren azala ▲

nondik norakoak. Hortik abiatuta gure burua joan zitekeen nahi zuen tokiraino". Eta Zigandaren ustez, oinarri hori sendoa zen: "Aritzek egin zuena abentura bat zen, guztiz, beraz abentura bazuen; baina umeen begiradatik gehitu behar zitzaion magia puntu bat, jolasa, hizkuntza erraza. Eta lkerren irudiak, noski, beti oso dibertigarriak eta adierazkorak direnak.



▲ Bideak dokumentala



Urteberri, egun ona....

Itsasoko koplez zenbait xehetasun

1999ko azken hiruhilekoan Pulunpen, 28. zenbakian, atera genituen Itsasoko Urteberri koplak, urte berriari harrera egiteko kantatzen direnak. Orain ez asko ere, 181. zenbakian, 2019ko urtarrilean, azkeneko lau koplak atera genituen, aurrekoak kopiatuz.

Eta ez dakit zergatik irristatu zaizkigun koplak horiek hain erraz, gainetik bederen ikusi gabe, bai baitira horietan oker zenbait.

Behin irristatzea ez da harrizkeoa, baina bi aldiz gehiegitxo iruditzen, eta zorretan ginela uste. Oraingoan zuzenduak aterako ditugu.

Horretarako Itsasora joan eta bertako zenbait lagunekin hitz eginez uste dut borobildu ditugula oraingoan. Lehenik Azpikoetxeko Bautiste Auzarekin ikuskatu genituen eta ondoren Goikoxukaldeko Maritxu Ziari zenari kantarazi genizkion Arameneko Miguel Maria Iriartek eta nik. Eta azken honen laguntzarekin azken dudak uxatu nituen. Horrela bada, uste dut idatz-makinaren okertxoak, gaizki ulertutako hitz okerrak eta abar zuzendurik, hemen ditugula benetako koplak, ustez behintzat:

1	5
Ur goiena, ur barrena. Urteberri egun ona. Egun onan seinalia Hemen dakargu ur berria. Iriki ezazu ataria.	Sentitzen zaitut sentitzen, Ari zerala jeikitzen. Zure zapetak, krisketa hotsak Honera ditut aditzen.
2	6
Hor goien goien ermite San Juan ebanjeliste. Horko ezkiek jotzaliertzat Limosna biltzen gabiltze.	Hor goien goien izarra Errekondoan lizarra. Etxe hontako nagusi jaunak, Urre gorrizko bizarra.
3	7
Etxekoandre zabala, Etxe oneko alaba. Bidian informaturik nator Limosnerua zerala	Izotzetan, elurretan, Abenduko gau tristetan. Bestiak oian lo daude (y)eta, Gu berriz hemen penetan.
4	8
Poltsan baditut diru bi, Batek bestea du irudi. Etxe hontako etxeko alabak Ama birjina dirudi.	Nagusi jauna barkatu, Ez degu ongi kantatu. Kantari onak badira baño, Kanpoan dira suertatu.



Miguel Mari Iriarte Antsorena, maistrua izandakoa. Arameneko nagusia. ▲

KONTRARIOAK

1	2	3	4
Armairuan sague, Kontrariue katue. Etxe hontako limosnarekin, Ez degu beteko zakue	Hor goien goien lainoa Azpikoaldian otsoa Arkakusoak ittoko aldik ba Etxe hontako atsoa	Hor goien goien otia, Guzie lorez betia. Etxe hontako etxeko alabak Auzoan dauke dotia.	Poltsan baditut diru bi, Batak bestea du irudi. Etxe hontako etxeko alabak Labe zatarra dirudi.



Kopla hauek direla eta, aspaldian entzuna nuen Urritzatik Itsasora joan zirela kopla hauek erakustera. Gehiago oraindik, Francisco Olaetxea Balda izan zela horietako bat, ezkondua eta Mikeleneko baltegian bizi zena. Bere alabak hala esaten omen zion:

-A zer nolako itxura, gizon ezkondua mutilekin gauzez kantari!

Kopla, lau bertso-lerrokoa da, baina, harrigarriki lehenbiziko bertsoan bost bertso-lerro ageri dira. Gainerako guztiak lau bertso-lerrokoak dira. Etxalekuko bertsio batean ere gauza bera ikusi izan dut. Eta Oskozko bertsioan berriz, 6 bertso-lerrokoa. Okerren bat ote?

Bigarren kopla ere deigarria da, San Juan ebanjelista ermitaz ari baita, Itsason Salbatore denean. Beste nonbaiteko oihartzuna dut sumatzen hemen, horko ezkilak ere Salbatore ermitakoak ezin izan, ez baitu ezkilarik izan inoiz. Urritzarren kontu horrek oraindik

susmoa bizkortu besterik ez digu egiten.

Beste xehetasun batzuk

Bestalde, hitzen bat OIA, goatzearen orde, aditzetan degu eta besten batzuk Gipuzkoako kutsua damaio, baina ez da harritzekoa ere, bertso kantuetan-eta, mendebalera begiratzeko ohitura handia izan baita (eta da)

Gaurko denboretan hainbat hitz galdu direnean, aipatu gabe ezin utzi: barrena, azpikoa, behekoa; zabala=bihotz zabala=eskuzabala; arkakusoa=kukusoa; lizarra, arbola mota bat; otea, erdaraz argoma; dotea: dotea edo ezkontzarako gurasoek umeari ematen dioten diru edo ondasuna.

Aditzak: zaitut (Nor-Nork) Edo aditz trinko batzuk: dakargu, ekartzen dugu; dirudi, irudi du.

Bukatzeko, Eguberri garai honetan desio bat aineratu gabe ezin isildu:

Urteberri, egun ona,

Urte onan seinalea...

2020 eta 2021: Urte txar hauek bazter utzi eta izanen ahal ditugu urte lasaia goak!

 Txurdan

Oharrak:

Itsason San Juan Ebanjelistik ez da. Eta Urritzako eliza, San Juan Bautista da. Nonbait, kopla hauek ekarriak dirudite. Nondik? Sakana aldean San Juan Bataiatzailerik eskainitako ermitak badira, baina San Juan Ebanjelistikari eraikitakorik ez.

Labe zatarra

Beste hitz bat ere badago hor nahiko ezezaguna zaiguna gaur: zatarra. Zatarra berez trupu bat da, hautsixe edo urratuxe. Eta labe-zatarra, berriz, labea garbitzeko erabiltzen zena, hortaz oihaltzatsia eta gainera kedarrez zikina izaten zen. Horrengatik esaten da azken bertsoan limosnarik eman ez duen etxeko alabari labe-zatarra dirudiela. Polita jartzen du kantuak!!!!

Oihaltzatsia zati hori, behar lukeen maitasunez eta hurbiltasunez ibiliko bagenu, euskarak duen baliabide bat erabiliz, xatarra edo txatarra esanenu genuke. Baztan eta Iparraldean xatarra eta gurean txatarra.

Badakizue zeri esaten zioten txatarra gure guraso eta amonek? Haurrei ipurdian jartzen zitzaizkien oihaltzatsia edo pixoihaltzatsia, orain fardelak egiten duen lan bererako. Hori izan da gurean txatarra. Beraz, nik uste berreskuratu beharreko hitza dela.

Eta norbaiti hitz hau erdara iruditzen bazaio, ikus beza Erdal Akademiako hiztegia: Chatarra (del vascuence, viejo) Erdaraz, metal pusken bilduma da.

Bizkaia aldean, berriz, itsusia esateko zatarra darabilte. Eta irainetan ere erabiltzen da: zatar-ipurdi, zakar-ipurdi bezala



▲ Bautixe, Azpikoetxekoa, irriz irri, bere ezaugarriak nabarmenena

Hiztegia

Hiruhilekoa: trimestre

Benetakoa: egiazkoa

Yeta: eta. Bertso kantariak horrela esaten dituzte zenbait hitz bertso barnean. Aspaldixamarreko ohitura nonbait. Dotoreago egiteko edo.

Mendebala: sartalde, occidente.

Kedarra: hollin

Baliabidea: ondasuna

Berreskuratu: recuperar

Ikus beza: ikus dezala

Iraina: norbait ofenditzeko hitza

Zatoz orgiz gozatzera

Lizasoko Kontzejuak Orgiko Aisirako Natur Gunearen inguruan sortutako zalantza eta gaizki ulertuen inguruan zenbait azalpen eman nahi ditu. Lizasoko herritarrok aspalditik eginahalak egiten ari gara jendeak gure oihanaz disfrutatu ahal izateko. Pertsona batek Orgi bisitatzen duenean zerbitzu anitz ditu bere eskura, eta jakitun izan behar gara honek Kontzejuarendako gastu handia dakarrela: jendeari harrera egitea, bisita gidatuak, kultur agenda, bide egokituak, mahaiak eta erretokiak, aparkalekua, komunak, sasi mozketak, hegazti behatokiak, edateko ura, eta nola ez, natur ondarea bera.

Zerbitzu eta balore hauek errespetatzen ez zituzten bisitari kopuruaren igoerarekin eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen beherapen jarraituarekin, Orgiko bideragarritasuna kolokan jarri zen (are gehiago, hondarreko hiru urte hauetan, Nafar Gobernuko dirulaguntzak eta Oihanak

dakartzan gastuak alderatuta, Kontzejuak dirua galdu egin du). Lizasoko Kontzejuak, Natur Gune hau bere zerbitzu guztiekin zabalik mantendu nahian, ordenantza bat onartu behar izan zuen proiektuaren beraren jasagarritasuna aitzinera eraman ahal izateko. Gaur egun, asmatu genuelakoan gaude eta pentsatzen dugu ordenantza honek sortzen dituen murrizketak proportzionalak direla Orgik jasotzen dituen eraso eta arriskuekin konparatuta. Gure ustez, bisitariak aldaketak nabaritu dituzte, eta anitz izan dira iritzi positiboak, Google-ko iritziak, erraterako, honen adibide dira.

Jakin behar da Orgin biltzen den diru gehiena oihanera itzultzen dela, hau da, bisitariengandik bisitariendako. Kontuak argiak eta publikoak dira, eta urtero erakusten dira. Oihana kudeatzen duen elkarte ere, Ultzama Fundazioa, irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden herritarrei lana ematen dio.

Pandemia garaian, Nafarroako Gobernuak izan zen murrizketa zorrotzak ezarri zizkiguna eta eremu irekia izan arren, poliziaren etengabeko mehatxupean, onartzera behartuak egon ginen. Ultzama Fundazioari eta berak ezarritako neurriei esker (edukieran murrizketa eta kontrola, aurre-hitzordua eta matrikulen erregistroa), Orgi ireki ahal izan zen, Nafarroako bertze natur gune batzuk baino lehenago gainera. Hortaz, salbuespen egoera honetan, Orgiko sarrera osasun irizpideengatik kontrolatuta zegoen.

Zorionez, irailaren 30etik aurrera, murrizketa hauek guztiak bertan behera gelditu ziren, eta Orgiko erabilera Ordenantzan oinarritzen da berriz ere. Horrela, Nafarroako Natur Gune guztietan bezala, motordun ibilgailuei baino ez zaie aparkalekua kobratzen (3€ autoko), eta ezin da Orgi inguruko pistetan aparkatu (abeltzainen lana ez ekiditeko). Baina oinez edo bizikletaz etorrita sarrera libre





eta doakoa dela azpimarratu nahi dugu. Dena den, oinezkoen segurtasunarengatik, Orgi barneko ibilbidean ezin da bizikletaz ibili.

Orgi Oihana Europan harizti ekosistema bakarrenetarikoa da zeinetan bateragarri egiten diren bere zainketa, erabilera publikoa, ingurumen-hezkuntza eta kultur-eskaintza zabal bat.

Gure iritziz, Orgik, Ultzamarako sarrera izanik, baliabide arrunt gutxirekin inguruko ekonomian eragin positiboa dauka, inguruko landetxe, taberna, jatetxe eta, oro har, turismoarekin lotuta dauden establezimendu hauetako web

orrialde anitzetan erakargarri gisa erabiltzen baitute.

Bukatzeko, Aisirako Natur Gune hau zabalik mantentzeko, Lizasoko Kontzejutik gure eskuetan dagoen guztia egitera konprometituta gaudela erran nahi dugu. Horretarako, hartu beharreko neurriak ezartzen jarraituko dugu, nahiz eta beharbada batzuetan ez diren gehien gustatzen zaizkigunak, baina, uste dugunez, bai hartu beharrekoak. Honegatik guziarengatik anitz gustatuko litzaiguke zuen bisita jasotzea eta Orgiko xarmantasuna zuekin partekatzea. ZATOZ ETA NATURAZ GOZATU.



Lizasoko Kontzejua

Zorionak Zorionak !



Zorionak Andoni!



Zorionak Josu!



Zorionak Ilargi!



Zorionak Patxi eta Iñigo!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Etsai gehiegi euskarari eusteko

Euskarak Euskal Herrian nola iraun duen harrigarria izan omen da. Eta eutsi izan diogula traba guzien gainetik. Nonbait euskaldunak zerbaitengatik eutsi dio bere hizkuntzari.

Hala ere, Nafarroan batez ere, azken karlista gerratik (1873-1876) euskarak gainbehera ikaragarria izan zuen; garai hartan Orbaibarren (Valdorba) ere oraindik euskara bizirik egon eta Lanzko herria jo arte etorri zen galtzen-galtzen, gerra zibila 1936an piztu artio. 60 urtean horrelako atzerakada, izugarria izan zen! Ehunka herri galdu genituen.

Ez gara sartuko zergatia opatzen, baina bai erran, hizkuntzak ez direla berez hiltzen, hil egiten dituztela baizik; hori guziz frogatua dago.

1929. urteko berria

Diario de Navarran, 1929ko otsailaren 17an dator nola "Euskararen Adiskideak" deitu elkarteak euskaraz zekitela eta, saritu zituen Aezkoako Aria eta Aribere herrietako haurrak. Eta gauza bera, Esteribarko Urdaizkoekin, eta gure alderdian, berriz, Lanzkoekin.

Bagenekien Lantzen askoz ere lehenago erdara sartua zela, eta horrengatik, harritu gaitu periodikoko berri honek, nola oraindik ere, zenbait familiak eusten dioten euskarari. Gutxienez, hiru etxeetan euskaraz mintzatzen ziren haurrekin eta honako hauek dira etxeak eta haurrak:

Eusebio Ziganda Villanueva, **Goltxipenekoa**, 15 urtekoa.

Fermin Astitz Martikorena, **Iribarnekoa**, 8 urtekoa.

Francisco Iribarren Huarritz, **Ostatukoa** (Baserria auzoan dagoena) 9 urtekoa.

Lanzko haurrak deitura bakarrarekin zetozen Diarioan beste herrietakoak ez bezala. Bigarren deitura, adina, eta sortetxeen izenak gerok ikasi ditugu. Saritzeko umeen zerrenda hauek, orokorrean, herriko apezak bidaltzen zituen. Lanzkoa ere apezak igorri ote zuen? Don Erasmo Garro Lekunberriko semeak? Lantza 1905. urtean etorri eta euskara bazter utzi zuen apezak? Ia seguru, baina gaurkoan apez honek euskararekin izan zuen harremana beste baterako utziko dugu.

Hala ere soka ez zen hautsi

Dena dela, aipatutako etxe horiez landa bazen beste etxe franko ere zeinetan euskara indartsu zegoen. Eta aipatutako haur horien ondoren sortutakoren bat edo beste ere izanen zen euskaraz ikasiko zuenik. Guk ikasi dugunez hona beste bi euskaldun:

Julian Beuntza Ilarregi, Danbolin: euskararen aldeko nahia

Julianen aita, Vicente **Danboliñeneko** semea zen, eta Aritzuko **Jongixeneko** (1) Isidora Ilarregi Olaberekin ezkondu zen, eta ume bat izan zuten, Teofilo.

Alargundu eta bigarren aldiz ezkondu zen, oraingoan bere koinata Magdalena Ilarregi Olaberekin. Honekin 8 ume izan zituen, 6 neskato eta 2 mutiko. Denetan gazteena, Julian, 1927ko ekainaren 13an jaioa.

Julian, mutikotan, gerra ondorena, apez ikasketak egitera joan zen Iruñeko Seminaria eta bertan 3 urte egin zituen. Hango aldia egin

eta etxera itzuli eta nekazalgoan pasatuko zuen bere bizi guzia, lehenik labore biltzen eta geroago aziendarekin, esnetako behiekin, batez ere.

Etxean euskaraz ez zieten erakutsi gazteenei bederen eta erdara sartu zen. Hala zioen berak 2010. urtean egin genion elkarrizketa batean:

"-Hemengo euskera galdue da ia arront, zeatik ez gaude usetuek; hemen berian, itx'hontan berian, aite ta ama, euskeraz, beren ertian, eta gurekin erdiaz"

- "Badakizu nola ikasi giñuen? Aite ta amak beren ertian, nai e'tzutenian guk iartzea, ordun iten zuten euskeraz. Ta ondarreko (gu) yarri"

Zergatik galdu zen euskara galderari, erantzun hau eman dio:

"Hemen beti izanak dire karabineroak, ta hoiek denak erdaldunek, ta haiekin batian..."



Julian Beuntza "Danbolin" ▲



"Neri gustatzen zaide aunitz euskara" "Ez dakit ze emain nuken euskaraz ongi jakitia" (sic)

"Beti hala itta'gu. Ni honekin hasten baldin banaiz yolas pixkon'bat iten, beti euskeraz; gu bien ertian" -Bere arrebaz ari da-

"Beiekin (behiekin) ta, beti euskeraz" "Ja, ja, ja!"

Bai, gurasoek erdaraz erakutsi; Seminarioan, gerra pasatu berrian, hiru urte eman udako oporretarako soilik etortzen zela etxera eta hala ere euskara atzendu ez. Gure hizkuntzari erakutsi izan zion atxikipena izugarria izan da. Sinesgaitza! **Danboliñeneko** hauek bihotza behintzat izan ez dutenik ezin erran! Ongi kontutan hartzekoa, bai horixe!

2020ko maiatzaren 15ean hil zen Elizondoko zahar etxean, hain maite zuen Baztanen, baina sortetxe kuttunetik urrun.

Gerra ondorengo ezustea.

Lantzen, gerra ondoren ere oraindik bazen euskarari lotua zegoena. Euskara bihotzean zuena, dudarik ez dago. Uholdea, moda, berrikeria, gerra zibilaren ondoregogorra, baina **Goltxipenekoak**, D. Eusebio Ziganda Villanueva eta Doña Margarita Iraizotz-ek euskara bihotzean zuten. Eta, ez uste, borda urrun batean bizi zirenik, ez; herriaren erdi-erdian dago etxe hau.

Umerik izan ez eta inklusatik mutiko koxkor bat, sei bat urtekoa, ekarri zuten 1945ean: Jesus Narrica Ollo.

Erdaraz soilik zekiela etorri Lantza, baina euskaraz ederki ikasi zuen, haur, gazte eta ez hain gazte zirenak erabat erdaldunak zirenean. Bai, **Goltxipenean** bazegoen euskararendako lotura, atxikipena eta maitasuna. Eta bazegoen gogoa eta indarra. Baita behar ere,



Jesus Narrica "Goltxipo" ▲

gerra ondorena baitzen, garairik gogorrena.

Jesus Narrica Ollo, **Goltxipo**, beti etxean, nekazalgoan aritu zen gizona 2017ko otsailaren 12an hil zen, 78 urtetan; umore onekoa, lagunkoia eta erabat maitagarria izan zen gizona. Euskalduna.

Euskara galdu zen baina ez otzan-otzan, berez, ikusi ahal izan dugunez, lanak izan ziren lurpean sartzeko. Erran dugun bezala, hizkuntzak ez dira berez hiltzen, hil egiten dituzte eta, beraz, hiltzaileak ere izaten dira (2)

Ardo ozpinduen artean ardo frexko gozoa ere izaten da zorionez, eta gaurkoan Lanzko azken euskaldunetz ari izan gara. Gure oroimenean izan daitezela betikoan. Ohore eta aintza gure euskaldun bizkorrei. Eutsiko diogu!

1) **Yongixenekoak** ahozkatzen da.

(2) **Hiltzaileak** diogunean ez gara soilik Don Erasmoz ari, are gutxiago karabineroez, horiek baino kargu handiagoko gizonak izan dira euskara galbidera eraman dutenak.



Txurdan

Hiztegia

Deitura=abizena=apellido

Orokorrean: por lo general

Igorri=bidali (Ultzamaldean igorri erabiltzen da)

Iartu edo igarri: entendatu

Ondarreko= Azkenerako

Yarri=jarri= zerbaitetara jarri. Hemen, euskaraz ulertzea eta aritzea.

Emain=Emanen

Itta'gu: itten dugu.

Uholdea: Inundación

Berrikeria: modernidad, gehienetan zentzu txarrean.

Ondorea: consecuencia

Atxikipena: lotura, hurbiltasuna

Lagunkoia: lagunak egiteko ahalmena duena; sociable.

Aintza: gloria

Otzan-otzana, berez: mansamente, de por sí.



Andoni Gaskue Mendibe,

pilota

“Poztasun ikaragarria sentitu eta urte osoan egindako lana etorri zitzaidan burura”

Ostiralean munduko txapela irabazi, astelehenean Asperen deia jaso, eta asteazkenean Aspeko bulegoan kontratua sinatu. Hurrengo ostiralean, Larraintzarren debuta. Horrela izan zen Andoni Gaskueren aste ikaragarrienetakoa. Asperekin bi urteko kontratua sinatu du, bere ametsa, eta azaroren 5ean debutatu zuen etxean, Irribarriarekin 22 eta 19 irabazita, gainera. Benetako ibilbidea, ordea, debutaren ondoren etorriko da, berak onartzen duen bezala. Lehenengo parada, bigarren mailako binakako txapelketa.

Nola jaso zenuen Aspeko deia? Zertan ari zinen deitu zintuztenean?

Etxean nengoela jaso nuen deia. Ama eta aitonarekin mundialari buruz hizketan ari nintzen eta Aspeko Jon Apezetxeak deitu zidan arratsalde horretan, esanez Fernando Vidartek, Aspeko arduradunak, entrenamendu bat egin nahi zuen Aaron Arbizu eta biok ikusteko. Joan nintzen, nire entrenamendua asko gustatu zitzaizela esan zidaten eta denbora asko zermatela nire lana jarraitzen. Hurrengo egunean, goizean, Eibarren egin genuen hitzordua, Aspeko bulegoan, kontratua negoziatzeko.

Zer etorri zitzaizun burura?

Poztasun ikaragarria eta ilusio handia sentitu nituen, eta urte osoan egin dudana lan guztia etorri zitzaidan burura. Lesioaren ondorioz lan asko egin behar izan dut lehengo Andoni Gaskue izateko eta maila berreskuratzeko.

Espero zenuen?

Egia esanda, ez nuen espero, nahiz eta azken urtean beraiekin entrenamendu asko egin ditudan, ia astero, batez ere lesioaren aurretik. Partidetara ni ikustera zetozela ere banekien. Jendeak esaten zidan oso ongi ari nintzela eta izan nintekeela debutatzen hurrengoan, baina haiek ezer ez badizute esaten... ilusio hori daukazu, baina ez duzu espero.

Zer esan dizute ingurukoek eta etxeakoek?

Zorionak eman dizkidate. Guztiek badakite hori zela nire ametsa, profesionaletan debutatzea. Eta disfrutatzeko esaten didate, oraingo momentua disfrutatzeko, horrelakorik, ziur aski, ez baita errepikatuko.


Lesio baten ondoren etorri da albiste ona.

Lesio nahiko larria izan zen, kirol munduan dagoen larrienetakoa izan da. Akilesen tendoia hautsi nuen partida batean eta oso momentu gogorra izan zen. Lesio bat ez da beti ongi asimilatzen. Hasieran atsekabe izugarria hartu nuen, negar batean egon nintzen. Baina lesioa onartu eta lehenengo egunetik hasi nintzen lanean.

“Hori zen nire ametsa, profesionaletan debutatzea”



Larraintzarren, bere herrian debutatu zuen Gaskuek, azaroaren 5ean.



Andoni Gaskue, aitona Inaxiorekin pilotan, 2004an. Periko Zunzarrenek aterata eta Ultzamako Udalak argitaratutako Uxama bere liburuan argitaratua.



ekoaholkuak

“Suaren energia berriztagarria”

Udazkenak aurrera jarraitzen du, eta Ama Lurra lozorroan sartzen ari da. Iluntasuna argiari gailendu zaio guri ere aro berrian sartzeko garaia dela gogoraraziz: sutondoan goxo-goxo atsedean hartu, hausnartu, amestu... bakoitzak gure barrena entzun eta horri erantzuna ematen saiatzeko aukera paregabea. Suak, naturako beste elementuek bezala, indar berezia du eta hotz aroan behar dugun beroa eskaintzearekin batera, lasaitasuna emateko gai ere bada.

Suak babesten gaitu hotzetik, eta suarekin janaria prestatu dezakegu, horretarako egurra besterik ez dugu behar, eta gure basoetan ez da egurrik falta. Energia berriztagarriek egungo gizartearen oinarria izan behar dutela esaten duten honetan, ez dugu urrutira begiratu behar, gure ingurura baizik. Etxe ondoan dugu egurra, diotenez,

izaki bizidun guztiek hitz egin eta mugitzeko ahalmena zuten garaian, etxeetara bakarrik hurbiltzen zena. Gizakiok eragindako haserrealdi baten ondorioz, ordea, egun guk joan behar dugu egur bila, baina gasolioa edo gasa baino gertuago ditugu.

Bada, horixe, moda-modako etiketak daramatzana: bertakoa, berriztagarria, mineral arrarorik gabea, burujabetzarantz lagunduko diguna... eta “itzalaldia”ren beldurra zuenera heldu bada, suarekin lasai egon, zuenean ez baita berorik ezta salda goxorik faltako!



Lurra



sua ▲

Suaz baliatzen diren zenbait adibide, eskualdean

Alfredo Altzueta. Muskitz, Imotz

Joseba Gartzaronek, Oskozko auzokidea izandakoak, buztinezko estufak egiten ditu, eta eskualdean jarri ditu batzuk. Alfredo Altzuetaren etxean, Muskitzen, kasu.

Alfredo Altzueta: “Batez ere etxea berotzeko erabiltzen dut, eta batzuetan jana prestatzeko ere bai. Buztinezkoa izanda egurrak sortzen duen beroa askoz gehiago aprobetxatzen da, metatu egiten

delako. Horregatik, oso eroso da, egur guztia aldi batean erretzen da eta ez da egunean egurra botatzen joan behar. Goizean pizten duzu sua eta beroak egun osoa irauten du”.

Ultzamako Udalean, biomasa

Kaldera 2009-2010etik dago. Egurra eta ezpalak erretzen dituzte, kalefakziorako eta ura berotzeko. Martin Pikabea, Ultzamako alkatea: “ez dakit ekonomikoki

merkeagoa den, baina behintzat ez zara gasolioaren menpe, ez duzu gasolioa erretzen. Urtero 500 tona egur ateratzen da, lehortzen dugu, eta gero eskaeraren arabera

joaten gara erretzen. Horrekin udal instalazioak, Gizarte Zerbitzuko mankomunitatea, ikastetxea, frontoia eta osasun etxeko argindarra eta ur beroa izaten dugu.



Miguel Goikoetxeandia, aktorea: “Miguel Hernándezen bizitza belaunaldi baten oso adierazgarria iruditzen zitzaidan”

Ostiral kulturaletan une ahaztezin batzuk bizi ahal izan ditugu, El Drogasek ezusteko kontzertu bat oparitu zigunean bezala. Azaroaren 12an, horietako bat izan zen. Egun horretan, Iluna Teatrok Miguel Hernandezen bizitza taularatu zuen.

Jakina denez, espetxean hil zen poeta, gerra zibilaren amaieran, tuberkulosiak jota. Miguel Goikoetxeandia, Iluna taldearen zuzendaria eta lanaren egileak, txikitan ahuntzain apala izan zen poeta honen bizitza berreraiki du *Con los ojos abiertos* antzezlanean. Horretarako eskutitzak, testigantzak eta irakurketak hartu ditu oinarri. Goikoetxeandia berak hainbat pertsonaia antzezten ditu. David Larrea lankideak, berriz, Miguel Hernandezen papera egiten du, eta, intentsitate handiz, negar batean amaitu zuen obra Larraintzarren. Ez zen bakarria izan. Ikusleek hunkituta ikusi zuten emanaldia. Gaur Goikoetxeandia egile eta zuzendariarekin hitz egin dugu.

Nondik datorkizu Miguel Hernandezekiko interesa?

Beti irakurri izan dut poesia, nerabezarotik. Becquerengandik hasita, ia denak bezala. Ondoren Machado, Lorca, Blas de Otero, Gloria Fuertes, Benedetti, gaur egungo poesia asko, baina bere konpromiso literario eta biziagatik, Celaya eta Hernandezen lanarekiko hurbiltasun handia sentitu dut. Miguelen kasuan, beti interesatu izan zait haren bizitza, poeta eta kolektiboa izateko zuen justizia-ideala, eta gerta zitekeen guztiari aurre egitekoa. Oso bizitza teatrala, eta belaunaldi baten oso

adierazgarria iruditzen zitzaidan. Grinatsua, bizia, burugogorra, borrokalaria eta gizatiar sakona.

Con los ojos abiertos-ek dokumentazio-lan handia du atzean, hitz egin iezaguzu horretaz eta nola lortzen duzun informazio hori guztia obra batean konpontzea.

Urteak dira Hernandezen bizitzari buruz aurkitzen nuen guztia artxibo batean biltzen nuela, uneren batean zerbait egin ahal izateko asmoz. Argi neukan gauza bakarra zen ez nuela bere poemekin errezitaldi bat egin nahi. Gainera, inguruko liburu guztiak biltzen

ari nintzen; Vicente Aleixandre, bere emazteari idatzitako gutunak, bere biografia ezberdinak, herriko lagunekin izandako harremana, poeta garaikideak, Sijéren lana, eta abar. Pandemia garaian, bere bizitzari buruzko obra idaztea erabaki nuen. Zerbait teatrala egiteko arazoarekin topo egin nuen, gutunak eta testigantzak baino ez zeudelako, askotan subjektiboak, baina guztiek indar handia zuten, ahalmen dramatiko handia. Hortik aurrera, alderdi emozionalean zentratu nintzen, lan sinple, digerigarri eta Miguel Hernandezek merezi dituen pasio eta emozioduna egiten saiatu nintzen.





Ultzaman ikusi ahal izan genuen bezala, antzezpena oso intentsitate handikoa da, oso zirraragarria, zuentzat ere, aktoreentzat. Nola kudeatzen duzue hori guztia?

Entseguak hautazko prozesu luze eta liluragarria izan ziren. Eszena asko baztertu genituen eta beste batzuei intentsitate handiagoa eman genien. Funtzioaren uneak aukeratuta, ahalik eta intentsitate eta egia handienarekin eramaten saiatzen gara. Oso lan polita da aktoreontzat.

Zure kasuan, gainera, pertsonaia asko interpretatu behar dituzu, zaila al da?

Asko landu dugu. Giménez Caballero edo Aleixandre bezalako iturri eta testigantza orijinaletara joanez. Edo dokumentaziorik ez duten pertsonaia iradokitzaileak lortzen saiatzen, Lorca-ren kasuan bezala. Eta pertsonaia asko direnez, ahots-teknikari eta bularreko, buruko eta diafragmakoa ahotsei tiraka, minik ez egiteko.



Nola izaten ari da obraren harrera lehen emanaldi hauetan eta zer ibilbide izan dezake zuen ustez?

Oso ondo doa. Oro har, antzezlana ikusi duten pertsonak ez dakite

oso ondo zer ikusiko duten eta zer aterako den. Emozio eta drama handiz, uste dugu antzezlana jendearengan eragina duela. Ibilbide luzea izatea espero dugu, ahoz aho zabaltzea eta komunitate askotan oholtzan izatea. Ez dugu presarik, obra berezia da, ibilbide luzekoa, eta ez zaigu axola pixkanaka joatea. Ikusiz gero, gustukoa dela uste dugu.

Lan hori guztia, Miguel Hernandezekiko obsesio txiki hori eta bere obra ezagutarazteko duzun interesa, beste lan batzuetan ikusiko dugu?

Ez dakit. Asko interesatzen zaidan garai historikoa da, istorio askoren ernamuina. "Vencidos" gure aurreko obra, nolabait, "Con los ojos abiertos" honen ahaidea da. Orain denbora batez atseden hartu behar du, baina lan berriak egon daitezke, bai horixe.



 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburuazaina

2021eko Urria

2021eko urrian gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ANUE Aritzu

Araide Etxebertz Aierra, Iban eta Luperen alaba, urriaren 18an sortua **Etxebertzenean**.



▲ Azken-azkenekoa Aritzun, Araide

Enara Arretxea Mariñelarena, Asier eta Anaren alaba, abuztuaren 21ean sortua **Goitikoetxeberrian**.

(Ez genuen sartu bere garaian)



▲ Enara familia osoarekin

BASABURUA Orokiet

Julia Mindegia Balda, Eukene eta Sandraren alaba, urriaren 17an jaioa, **Apezetxean**.



▲ Julia, orokietar ttikia

“ Zorionak gurasoei ”

ULTZAMA Alkatz

Ane Orrio Oizartun, Fermin eta Amaiaren alaba, urriaren 30ean sortua. **Pinttoneberrian**.



▲ Ane, ongi etorri!

Ezkontzak:

Guk dakigula ez dugu ezkontzarik izan

Heriotzak:

ATETZ Eguarats

Damaso Azkarate Oskotz, **Juantzoneko** nagusia; urriaren 7an hil zen 89 urtetan.



▲ Damaso

BASABURUA Beramendi

Julia Biurrarena Aldanondo, **Xarrajeroren etxeko** etxekoandrea; urriaren 20an hil zen 95 urtetan.



▲ Escolastica eta Julia ahizpak

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





**CAJA RURAL
DE NAVARRA**

Siempre *cerca*



Siempre *cerca*

**En Caja Rural de Navarra te
acompañamos y te apoyamos en
los *momentos más importantes***

Seguimos creciendo y evolucionando juntos

Porque no hay que dejar de soñar

www.cajaruraldenavarra.com

